

**«UTZIGUZU ZU ZAINTZEN: EROSKETA EGINGO DIZUGU ETA TELEFARMAZIA» SUSTAPENAREN OINARRIAK
65 URTE EDO GEHIAGO ETA OK KONTUA DAUKATEN KUTXABANKEKO BEZEROENTZAT**

1.- Kutxabankek estatu mailan egingo duen sustapen honetan 65 urte edo gehiago duten bezeroek parte hartu ahal izango dute. Horretarako, hurrengo oinarrietan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte. Kutxabankek langileak sustapen honetatik kanpo daude.

2.- Sustapena **2020ko maiatzaren 11tik 2020ko uztailaren 11ra** epealdian egongo da indarrean, eta indarraldi tarte horretan, Alaren Human Services, SAK (IFK: A82277963) eskaintzen duen «Telefarmazia» zerbitzua **bi (2) aldiz eta «Erosketa egingo dizugu» zerbitzua behin (1) erabili** ahal izango da **kostu gehigarririk GABE, sendagaiena eta erosketa-zerrendaren* zenbatekoa bakarrik ordainduko dira**. Horretarako, 919992524 telefonora deitu behar da.

3.- Sustapen honetan parte hartu eta Onuradun izateko, Kutxabankek bezeroek baldintza hauek bete beharko dituzte: **65 urte edo hortik gorakoa izatea, 2020ko maiatzaren 6an Kutxabanken OK kontu baten titularra izatea eta 2020ko maiatzaren 11tik 2020ko uztailaren 11ra 919992524 telefonora deitzea**. Bertan, sustapenaren onuradunak direla egiaztatuko da eta «Telefarmazia» edota «Erosketa egingo dizugu» zerbitzuak eskatu ahal izango dituzte. Hona hemen zerbitzuon ezaugarriak:

A) Telefarmazia

Sustapena indarrean dagoen bitartean, Onuradunak bi (2) aldiz erabili ahal izango du «Telefarmazia» zerbitzua, Onuradunak farmaziara sendagaiak erostera joan ezin duen kasuetarako. Alares bere etxera edo dagoen lekura joango da sendagaiaren zenbatekoa eta, beharrezkoa bada, errezeta jasotzera, hurbilen dagoen farmazian egingo du erosketa eta dirua jaso duen leku berera eramango du sendagaia. **Onuradunak sendagaiarengatik baino ez du ordainduko.**

- Zerbitzua eskatzeko ordutegia: 24 orduz urteko 365 egunetan.
- Zerbitzua emateko ordutegia: 24 orduz urteko 365 egunetan.
- Zerbitzua burutzeko epea: Gehieneko epea hiru (3) ordutakoa da Espainiako edozein lekutan.

BALDINTZAK ETA BAZTERKETAK:

- Zerbitzua emateko, etxetik edo sendagaia/produktua eskatzen den lekutik gertuen dagoen farmazia erabiliko da, aurretik produktu hori daukala ziurtatu ondoren.
- Zerbitzuak farmazietarako baino ez du balio. Ez du ospitaletara, mediku-zentro zehatzetara edo parafarmazietara joateko balio.
- Zerbitzutik kanpo geratuko da, gaixotasun kronikoen ondorioz, erabiltzaileek maiz behar izaten dituzten sendagaiak aldi behin farmazian jasotzeko aukera.

B) Erosketa egingo dizugu

Sustapena indarrean dagoen bitartean, Onuradunak behin (1) erabili ahal izango du «Erosketa egingo dizugu» zerbitzua, Onuradunak ezin duenean supermerkatuara erosketa egitera joan. Onuradunaren etxean zenbatekoa eta erosketa-zerrenda jasotzeko behar diren baliabideak eskainiko ditu Alaresek, eta hurbilen dagoen supermerkatuan erosketa egin eta zuzenean onuradunaren etxera eramango du. **Onuradunak erosketaren kostua besterik ez du ordainduko**, *betiere pertsona bakar batek eramateko modukoa bada. Garraioaren bat erabili behar izango balitz, Onuradunak hartu beharko luke bere gain gastua.

- Zerbitzua eskatzeko ordutegia: 24 orduz urteko 365 egunetan.
- Zerbitzua emateko ordutegia: 9:00etatik 22:00etara, astelehenetik larunbatera, jaiegunetan izan ezik.
- Zerbitzua burutzeko epea: Gehieneko epea bi (2) ordutakoa da Espainiako edozein lekutan.
- Zerbitzua abian jartzeko epea: zerbitzua eskatu eta hurrengo lan-ordutik aurrera, 6 ordu eta 3 lanegun bitartekoa (premiaren, beharrak programatzeko aukeren eta herri horietatik gertu zerbitzua emateko profesional egokiak egotearen arabera).
- Lanorduak: 9:00etatik 18:00etara lanegunetan, eta 9:00etatik 13:00etara ostiraletan. Zerbitzua ordu horien ondoren eskatuko balitz, erantzuteko epea hurrengo laneguneko 9:00etatik aurrera jarriko litzateke martxan.

4.- Sustapen honen inguruan egiten den kanpainako publizitatearen bidez jasoko dute bezeroek sustapen honen berri, bai eta bezeroari bidaltzen zaizkion ohiko jakinarazpenen bidez ere.

5.- Onura hau ezingo da beste onura batekin ordezkatu, ez baliokidea ez desberdina, ez eta eskudirutan emandako haren balioarengatik ere.

6.- Sustapenaren parte hartzearen ondorioz, Onuradunen datuak Kutxabanken Informazio Sistemaren gordeko dira, eta haien izena, abizenak edo/eta irudia edozein publizitate edo sustapen-jardueratan, edozein bitarteko, euskarri edo formatutan, jarri, erabili edo zabaltzeko besterik ez dira tratatuko. Horrek ez dio interesdunari trukean ordainsaririk edo etekinik eskuratzeko eskubiderik emango (oinarri hauen arabera sustatutako onura erabiltzea izan ezik), Onuradunei edo ordezkari legalari, dagokionaren arabera, eskatutako berariazko baimena baldin badauka erakundeak. Horrez gain, jakinarazten dugu datu pertsonalen tratamenduari zerikusia daukan edozein arazoren aurrean, kontrolerako agintaritzan erreklamazio bat aurkez daitekeela edonoz. Halaber, datuetara sartu, zuzendu, ezabatu, aurka agertu, tratamendua mugatu eta lekualdaketa eskatzeko eskubidea ere badago, bai eta datu pertsonalekin loturiko banakako erabaki automatizatuen parte ez izateko ere. Eskubide hauek guztiak idatziz gauzatu daitezke, Kutxabanken helbidera bidalitako jakinarazpenen bidez, edo posta elektronikoz, helbide honetara: info@kutxabank.es. Bi kasu hauetan, NANaren fotokopia bat erantsi beharko da. Zure datuak araudiak agindu bezala tratatu ez ditugula uste baduzu, Datuak Babesteko Ordezkariarekin harremanetan jar zaitezke, helbide honetan: dpo@grupokutxabank.com. Dena dela, Datuen babeserako gure politikari buruzko informazio gehiago kontsulta dezakezu www.kutxabank.com webgunean edo Kutxabanken edozein sukurtsaletan.

7.- Sustapenaren baldintzak betetzen dituen bezeroen batek onura honi uko egiten badio edo erabiliko ez badu, ez du trukean ordainik jasoko.

8.- Sustapen honetako onuraren ondoriozko zergak zerbitzuen Onuradunak ordaindu behar dituzte, onuraren balio fiskalari dagokion PFEZren konturako ordainketa izan ezik, izan ere, zerga hori Kutxabankek ordainduko du Onuradunaren izenean.

9.- Honako oinarri hauek bezeroen esku daude Kutxabankeko bulegoetan eta bere edozein webguneetan.

10.- Kutxabankek ez dauka inolako erantzukizunik onura hau erabiltzean sor daitezkeen gorabeheren aurrean.

11.- Sustapen honetan parte hartzeko, honako oinarriek gain, zozketari lotuta egon litezkeen gorabeherak ebazteari buruz Kutxabanke duen irizpidea onartu behar du bezeroak.

Bilbon, 2020ko maiatzaren 7an.